

IRABAZI ITURRIAK

Gure irabazi iturririk nagusia gure produktuen salmentatik ateratzen ditugun etekinak izango dira, bai online bai modu fisikoan.

Produktuaren arabera, prezioa aldatuko da, jakina; merkeena 20 euro ingurukoa izango da eta garestiena 60 eurokoa. Lehenengo urtean, aurreikusten dugu 5000 produktu saltzea, beraz 100.000 euroko mailegua eskatuko dugu 100.000 eta 300.000 €-ko arteko diru sarrerak aurreikusitak.

Bezeroen fidelizazioa bilatzeko, crowdfunding bat antolatuko dugu. Fidelizazioa lortzeko bezeroen ekarpenen araberako sari sistema bat egingo dugu. Adibidez, ekarpen kantitate jakin batekin, dendan erabiltzeko deskontu txartelak eskuratzeko ahalmena izatea.

Gure produktuaz gain, gure enpresak hainbat zerbitzu ezberdin eskainiko ditu, hala nola aseguruak, erreparazio zerbitzua eta abar.

